escala social, y deprimidos en su dignidad, pelearon como buenos, y fueron un poderoso auxilio para afianzar la independencia y la seguridad de la pátria comun. ¡Tan grande poder tiene en el corazon del hombre el amor santo del país!

PABLO ILARREGUI.

# AURRA ETA KATUA.

(ROS̄ARIO ARTOLA-RI).

Katu beltz eder bat zan
Baserri batian,
Ibilli nai zubena
Beti jolasian;
Noiz nai ezkutatzen zan
Su burni atzian,
Licharka ibill naiyan
S̄arpaka eltzian.
Aurrak bein deitzen diyo,
At̄o mosiñacho,
Zu zera neretzako
Jaio jostallucho;
Bañan katuak diyo
Or dago amacho,
Zeñak berotzen diran.
Bizkarra ondocho;
Gañera lapurraren
Zai or dago chucho,

Segitutzen dirana,
Atzetik askocho;
Orrengatikan nago
Gordea bildurcho;
Begiyak ipiñirik
Argi ta larricho.
S̄a s̄a jo ta joango da
Diyo aurrak t̄ot̄o,
Is̄utu gabe egin
Ortik bera t̄at̄o;
Ut̄uten? t̄an da eta
Neregana at̄o,
Pa bat ekachu orren
Ordañez pot̄ot̄o.
Su burniyan atzetik
Katua irten ta,
Joan zan aurchoagana
Esanaz, au planta;

Or egon da chakurra
Nere zai etzanta,
Au da leku danetan
Chakur katu kanta.
Katu petral char arrek
Bi belarriyetan,
Atzamar egin ziyon
Bada ordañetan;
Gero segitzen ziyon
Aurrak geienetan,
Makillaz jo nairikan.
Bi anka zañetan.
Geroztik katu orrek
Etzuben koipetan,
Ibiltzeko lanikan
Batere *kopletan;*

Len beti sukaldean
Noiz nai jostaketan,
Ibiltzen zan katua
Aurrakin festetan:
Bañan geroz ibilli
Oi zan gordeketan.
Gure artian ere
Dagonak zorretan,
Ibilli bearko du
Beti arroketan.
Zor pagatzalle charra
Danari benetan,
Neurriyak artzen zaizka
Bere bi oñetan;
Naiz igeska ibilli
Bide galduetan.

JUAN IGNAZIO URANGA.